

g a r a i a

MAI 2001-01-19

TXOOOOOTX!!!!



Hainbat hilabetetan zain egon ondoren, iritsi da edalontzia kupelapean jarri eta txoooootx!! agindua entzunda, sasoi honetako sagardoaz gozatzeko garaia.

Ez dira ez, gutxi, momentu honen zain dabiltzanak lagun artean afari «pendiente» hori egiteko edo, besterik gabe, sagardoaz gozatzeko. Astigarragako Udalak, tabernari elkartearekin batera, asteburu berezi honetarako egitarau petoa antolatu du kupela-irekiera ospatzeko. Joseba Barandiaran plazan kokatutako karpan, besteak beste, Astigar dantza taldea izango da, eta gauarekin bat, Tapia eta Leturiaren doinuek afari herrikoia lagunduko dute. Hortaz gain, nekazarien produktuen azoka izango da ikusgai, eta iganderako, osasuntsu dabilenentzat behintzat, 16 sagardotegi bisitatuko dituen mendi martxa aurreikusia dago. On egin!!

ASTIGARRAGA:

Txotx -Berri festa Bigira taldearekin. 18.30ean, plazan.